# Xedapen Orokorrak

## INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

### 5975

175/2006 DEKRETUA, irailaren 19koa, Armañon aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana onartzen duena.

Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legeak, ekainaren 30ekoak, gune bat Parke Natural deklaratu aurretik inguru horretako Natur Baliabideak Antolatzeko Plana eratzeko eta onartzeko eskatzen du.

Xede horretarako, eta Armañon aldea –Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik- parke natural deklaratzearen bidez babes araubide berezia ezartzea Eusko Jaurlaritzaren helburu bat izanik, Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 1995eko otsailaren 16ko Agindua xedatu zuen; horren bidez, Euskal Herriko Natura Babesteari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aipatutako aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana eratzeko eta onartzeko izapideari hasiera eman zitzaion.

Horrenbestez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, planaren organo idazle gisa, hasieran dokumentu bat egin zuen, eta gero Bizkaiko Foru Aldundiak txostena eman zuen horren inguruan; ondoren, interesdunei (dela aldeko interes sozialen titularrei, dela natur ingurunearekin lotura duten elkarteei, dela Karrantza eta Turtziozko udalei) entzunaldia egin zitzaien.

Kontsulta hauek egin ondoren, eta Naturzaintzak 2004ko urriaren 28ko bileran hartutako akordioak kontuan hartuta, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak 2004ko azaroaren 23ko Agindua xedatu zuen; horren bidez, Armañon aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Planari hasierako onarpena eman zitzaion, eta dokumentua jendaurrean jarri zen.

Jendaurrean jartzearen ondorioz, eta aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren 2005eko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez Armañon aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana behin-behingoz onartu zen.

Ondoren, Plana Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidali zen aginduzko txostena eman zezan. Txostena 2005eko ekainaren 3an eman zuen.

Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak hala eskatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

### 5975

DECRETO 175/2006, de 19 de septiembre, por el que se aprueba el Plan de ordenación de los recursos naturales del área de Armañón.

La Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco exige, previa a la declaración de una zona como Parque Natural, la elaboración y aprobación de un Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

A tal efecto, y siendo uno de los objetivos del Gobierno Vasco dotar al área de Armañón, situada en el Territorio Histórico de Bizkaia, de un régimen especial de protección mediante su declaración como Parque Natural, se dictó por el Consejero de Industria, Agricultura y Pesca la Orden de 15 de febrero de 1995, por la que se inicia el preceptivo procedimiento para la ordenación de los recursos naturales de dicha área, de conformidad con lo previsto en el artículo 7 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

Dentro de dicho procedimiento, el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, como órgano redactor, elaboró un documento previo que fue informado por la Diputación Foral de Bizkaia y que, posteriormente, fue sometido a la audiencia de los interesados, titulares de los intereses sociales de la zona, asociaciones relacionadas con el medio natural y Ayuntamientos de Valle de Carranza y Trucios-Turtzioz.

Como resultado de estas consultas, y previo informe del Consejo Asesor de Conservación de la Naturaleza del País Vasco-Naturzaintza que emite con fecha de 28 de octubre de 2004, se dicta la Orden de 23 de noviembre de 2004, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, que aprueba inicialmente el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Armañón y lo somete a información pública.

Como resultado del trámite de información pública, y teniendo en cuenta las alegaciones presentadas, el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Armañón se aprueba provisionalmente mediante Orden de 16 de mayo de 2005, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

El Plan aprobado provisionalmente se remite a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para informe que evacua el 3 de junio de 2005.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, previa delibe-

2006ko irailaren 19ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– Dekretu honen I. eranskin gisa argitaratzen den Armañon aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana onartzea, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 7. artikuluak ezarritakoaren arabera. Antolaketa planoak, berriz, II. eranskin gisa argitaratzen dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 6.2 artikuluak ezarritakoaren arabera, Karrantza eta Turtzioz udalerrietan eragina duten lurralde-antolamenduko edota antolamendu fisikorako baliabideak, Armañon aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Planak ezarritako arauetara egokituko dira. Egokitzapena bete bitartean, Plan honen erabakiak ezarriko dira, beti ere dauden lurralde-antolamendurako edota antolamendu fisikorako baliabideen gainetik egongo direlarik.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko irailaren 19an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendua sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

IRAILAREN 19KO 175/2006 DEKRETUAREN I. ERANSKINA. Zati Arau-emailea

ARMAÑON ALDEKO NATUR BALIABIDEEN ANTOLAMENDU PLANA

1.– Xedapen orokorrak.

1.1.– Izaera.

Plan hau Armañon aldeko natur baliabideen plangintza egiteko tresna da, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legean aurreikusten diren ondoreetarako.

ración y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 19 de septiembre de 2006,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Aprobar el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Armañón, de acuerdo con lo establecido en el artículo 7 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. A tal efecto se publican, respectivamente, como anexos I y II al presente Decreto, la parte normativa y el Plano de Ordenación.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

De conformidad con lo establecido en el artículo 6.2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, se adaptarán los instrumentos de ordenación territorial o física que afecten a los municipios de Valle de Carranza y Trucios-Turtzioz a las determinaciones establecidas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Armañón. Entretanto dicha adaptación no tenga lugar, las determinaciones del Plan se aplicarán en todo caso, prevaleciendo sobre dichos instrumentos de ordenación territorial o física.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de septiembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

ANEXO I AL DECRETO 175/2006, DE 19 DE SEPTIEMBRE. Parte Normativa

PLAN DE ORDENACION DE LOS RECURSOS NATURALES DEL AREA DE ARMAÑON

1.– Disposiciones generales.

1.1.– Naturaleza.

El presente Plan es el instrumento de planificación de los recursos naturales del área de Armañón, a los efectos previstos en la Ley 16/1994, se 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

1.2.– Antolatu beharreko lurralde-eremua.

Armañon aldeko Natur Baliabideen Antolamenduko Planaren (NBAP) eraginpeko zona Bizkaiko Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldeko muturrean dago eta 3.519 ha-ko azalera du. Enkarterriko eskualdean dauden Karrantza eta Turtziozko udalerrien zati bat hartzen du. Iparraldean eta mendebaldean Kantabriako Autonomia Erkidegoarekin egiten du muga. Hegoaldean honako errepide eta pistak daude: BI-630 errepidea, Venta La Perra eta Rioseco artean; Santecillara doan errepidea; Paúles – Herboso – La Casa de las Picasera daraman pista; BI-630 errepidea Las Torcachas auzoraino; El Suceso auzora doan pista; Casa Nuevasera doan errepidea eta La Escrita gainera daraman errepidea. Bide horiek elkarguneak badituzte ondoko lur-eremuekin, elkarguneok ez dira Plan honetan sartuko; lur-eremuak dira: Karrantza Haraneko Udalaren Arau Subsidiarioetan hiri-lurzoru edo landagune gisa definitutako lur-eremuak, indarreko legeriaren arabera onesten den Venta La Perra harrobia ustiatzeko planak ukitzen dituen lur-eremuak, eta harrobi horren ondoan dagoen eta industria-instalazioak hartzeko ahalmena duen zona. Ekialdeko mugak Villaverde de Truciosko udalerriaren muga eta Turtziozko Udalaren jabetzakoa den Remendon deituriko onura publikoko 122 basoa dira, hurrenez hurren.

Antolatu beharreko lurralde-eremua agiri honekin batera doan kartografian irudikatuta dago.

1.3.– Bermeak.

1.3.1.– Antolamenduko Plan honek ezartzen duen babes-erregimena ondoko alderdiekin bateratu ahal izango da eta hauek bermatzeko ere balioko du:

a) Autonomia-administrazioak, Estatuko Administrazioak, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-administrazioak eta tokiko korporazioek beren arloetan dagozkien eskumenak erabiltzea.

b) Dauden eskubide pribatuez baliatzea.

c) Landa-jarduerak egitea eta horiei dagozkien baliabideak modu antolatuan ustiatzea, erregimen pribatuan edo beste erregimenen batean, Antolamenduko Plan honetako babes-helburuen arabera jarritako mugapenei kalterik egin gabe.

d) Kalte-ordaina emango da, baldin eta NBAPn eta Erabilera eta Kudeaketako Plan Zuzendarian ezartzen diren murrizketak indarrean jarri direla eta, jabetza pribatua edo bidezko ondare-eskubide eta interesak kentzearen ondorioz errenta galtzea izan bada.

e) Administrazio eskudunek desjabetzeko dituzten ahalmenak gauzatzea, bai eta Parkean bertan kokatutako lurren kostu bidezko inter vivos eskualdaketetan horiek lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko esku-

1.2.– Ámbito territorial de ordenación.

La zona sometida al Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN) del área de Armañón se sitúa en el extremo noroccidental del Territorio Histórico de Bizkaia, ocupando una superficie de 3.519 ha. Comprende parte de los municipios de Valle de Carranza y Trucios-Turtzioz, ambos en la comarca de Encartaciones. Sus límites norte y oeste lo constituyen los lindes con la Comunidad Autónoma de Cantabria. El sur está formado por la sucesión de las carreteras y pistas siguiente: la carretera BI-630, entre Venta La Perra y Río Seco, la carretera a Santecilla, la pista a Paules - Herboso - la Casa de las Picas, la carretera BI-630 hasta las Torcachas, la pista al Suceso, la carretera a Casas Nuevas y la carretera al Alto de la Escrita. Cuando estas vías inteseccionan con los terrenos definidos como suelo urbano o núcleo rural en las Normas Subsidiarias del Ayuntamiento del Valle de Carranza, con los terrenos que resulten afectados por el plan de explotación de la cantera de Venta La Perra que se apruebe de acuerdo con la legislación vigente, así como con la zona aneja a dicha cantera con capacidad para acoger instalaciones industriales, son excluidos. El límite este está formado secuencialmente por el límite municipal de Trucios-Turtzioz y el monte de Utilidad Pública n.º 122 «Remendón», propiedad del Ayuntamiento de Trucios-Turtzioz.

El ámbito territorial de ordenación se encuentra representado en la cartografía adjunta.

1.3.– Garantías.

1.3.1.– El régimen de protección establecido por este Plan de Ordenación será compatible y garantizará:

a) El ejercicio de las atribuciones de la Administración Autonómica, la Administración del Estado, la Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y las corporaciones locales en las materias en las que sectorialmente sean competentes.

b) El ejercicio de los derechos privados existentes.

c) El ejercicio de las actividades rurales y el ordenado aprovechamiento de sus recursos, bien en régimen privado o en cualquier otro, sin perjuicio de las limitaciones que se imponen en función de los objetivos de protección establecidos en el presente Plan de Ordenación.

d) Será objeto de indemnización, la pérdida de renta provocada por la privación singular de la propiedad privada o de los derechos e intereses patrimoniales legítimos, con el fin de poner en vigor las restricciones o limitaciones impuestas en el PORN y el Plan Rector de Uso y Gestión (PRUG).

e) Las facultades de las Administraciones competentes, a efectos expopiatorios, así como el ejercicio de los derechos de tanteo y retracto en las transmisiones onerosas inter vivos de terrenos situados en el interior del

bideaz baliatzea ere. Hala ere, desjabetzea egin behar izanez gero, ezinbestekotzat jotzen diren ondasunak baino ez dira desjabetuko.

Desjabetze-ahalmenak soilik erabili ahal izango dira ukitutako ondasun eta eskubideen jabeek edo beste titular batzuek eta herri-administrazioek ez badute beste moduren bat ezartzen aplikatu beharreko araudi bereziaren ziozko kalte-galerak ordaindu edo konpentsatzeko.

f) Eremuan lehentasuna duten hobekuntza-neurriak aplikatzea.

1.3.2.– Edozein lur-eremutan, publikoa zein pribatua izan, ekintzaren bat garatu nahi izanez gero, ezinbestekoa da eskubidearen jabeak edo titularrak berariazko baimena ematea, zuzenbidearekin bat datozen salbuespenekin, Legeria Orokorrean jasotakoekin.

1.4.– Antolamenduaren helburu eta irizpide orokorrak.

Armañon alderako proposatu den antolamenduak honako helburuak ditu:

a) Balio ekologikoak kontserbatzea eta, kalte larriak jasan dituzten zonetan, horiek hobetu edo lehengoratzea.

b) Produkzio-sistema tradizionalak kontserbatu eta hobetzea.

Bi helburuok erlazionatuta eta elkarren menpean daude eta beste helburu hauen aurrean nagusitzen dira:

c) Karrantza eta Turtziozko udalerrietako ekonomia dibertsifikatzea; horretarako, jada badauden produktuei balio berria emango zaie eta produktu berriak merkaturatu daitezen erraztuko da.

d) Lurraldeari erabilera publikoa ematea, nahiz eta zona hauskorrak intentsitate txikiko erabilera linealerako izango diren (egonaldirako ekipamendu gabeko igarotzea).

1.5.– Indarraldia eta berrikusteko eragileak.

a) Armañon aldeko Natur Baliabideen Antolamenduko Planaren indarraldia mugagabea da.

b) Armañon aldeko Natur Baliabideen Antolamenduko Plana aldarazi edota eguneratu ahal izango da, betiere berau onesteko erabili den prozedura berari jarraiki, honakoren bat gertatzen bada: idazteko orduan nagusi ziren irizpide eta helburuak aldatzea, antolatu beharreko lurralde-eremuetako baldintza ekonomiko, sozial edo ingurumenekoek aldaketa edo eguneratzea premiazko egitea, edo jarraipen-planak hala egin dadin gomendatzea.

2.– Ezaugarri fisiko eta biologikoen deskripzioa eta interpretazioa.

2.1.– Ingurune fisikoa.

2.1.1.– Deskripzio orokorra.

Parque, si bien en el caso de expropiación, ésta deberá realizarse sobre los bienes estrictamente indispensables.

Las facultades expropiatorias sólo podrán ejercitarse en el caso de que los propietarios o las propietarias, u otras u otros titulares de los bienes y derechos afectados, no convengan con las administraciones públicas otra forma de indemnización o compensación de los daños y perjuicios derivados de la reglamentación especial que sea de aplicación.

f) Aplicación de medidas de mejora prioritarias en la zona.

1.3.2.– Toda actuación que se realice en terreno, bien sea público o privado, requerirá el consentimiento expreso del propietario o propietaria o titular del derecho, con las excepciones existentes conforme a derecho, recogidas en la Legislación General.

1.4.– Objetivos y criterios generales de ordenación.

La propuesta de ordenación que se realiza para el área de Armañón tiene los siguientes objetivos:

a) La conservación de los valores ecológicos y su mejora o recuperación en las zonas donde se hayan visto gravemente afectados.

b) a conservación y mejora de los sistemas productivos tradicionales.

Estos dos objetivos están relacionados y supeditados mutuamente y con prevalencia sobre los siguientes:

c) La diversificación de la economía de los municipios de Valle de Carranza y Trucios-Turtzioz, dotando de un nuevo valor a los productos ya existentes y facilitando la comercialización de otros nuevos.

d) El uso público del territorio, preservando las zonas frágiles para un uso lineal de baja intensidad (tránsito sin equipamiento para estancia).

1.5.– Vigencia y condicionantes de revisión.

a) El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Armañón tendrá una vigencia indefinida.

b) El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Armañón será objeto de modificación y/o actualización, con el procedimiento seguido para su aprobación, cuando varíen los criterios y objetivos que hayan prevalecido en su redacción o cuando las condiciones económicas, sociales o naturales de los ámbitos territoriales objeto de ordenación así lo hagan necesario, así como cuando el Plan de Seguimiento lo aconseje.

2.– Descripción e interpretación de las características físicas y biológicas.

2.1.– Medio físico.

2.1.1.– Descripción general.

– Armañon aldeko NBAPren eraginpean dagoen zona Bizkaiko Lurralde Historikoko ipar-mendebaldeko mugan dago. Guztira 3.519 hektareako azalera du: 2.971 hektarea Parke Natural gisa proposatutako zonari dagozkie eta gainerako 547 hektareak, berriz, zona periferikoari. Enkarterriko eskualdean dauden Karrantza eta Turtziozko udalerrien zati bat hartzen du.

– Altueran alde handiak daude. Zonarik baxuena Venta La Perra da, mendebaldeko mugan; itsasoaren mailatik neurtuta 118 metrora dago. Bestalde, 800 metro baino gehiago dituzte Armañon mendiak (856 metro) eta Los Jorrios tontorrak (836 metro).

2.1.2.– Klima.

– Antolatutako aldea Haran Atlantikoen Eskualdean barneratzen da. Bertan ur asko dago eta tenperaturak leunak dira. Urteko batez besteko tenperatura 11-13 ºC ingurukoa da. Urteko tenperatura maximoen batezbestekoa 14-15 ºCra heltzen da eta minimoena 7,5-8 ºC ingurukoa da.

– Eurien erregimenari dagokionez, zona menditsua denez, hodei ugari dago eta prezipitazioak ohikoak dira, batez ere likidoak, nahiz eta tarteka elurra ere ikus daitekeen punturik garaienetan. Urteko batez besteko prezipitazioei dagokienez, zona batzuetan 1.300 mm-koak dira eta beste batzuetan, berriz, 1.700 mm-tik gorakoak (adibidez, Armañon eta Los Jorrios mendietan).

2.1.3.– Gea.

– Antolatutako aldean aurkitzen diren materialak oro har Behe Kretazeokoak dira, zehazki garai Aptiar eta Albiarrekoak.

– Kretazeoko materialen artean ingurune sedimentario oso ezberdinetako bi konplexu bereizten dira: Urgondarra eta Supraurgondarra edo Albiar-Zenomaniarra.

– Interes geologiko handieneko guneen artean Karlistaren torka eta Pozalaguako koba aipa daitezke.

– Eremu ordenatuan badago meatzaritzako jardueren zenbait aztarnategi, batez ere kaltzitarenak eta, neurri txikiagoan, kareharri, harearri eta dolomienak.

2.1.4.– Edafologia eta erabilera-ahalmena.

Antolatutako aldean hiru unitate edafologiko bereizten dira: bizkar eta muinoak, malda handiko mendi-hegalak, eta zona karstikoak.

a) Bizkar eta muinoetan, malda ertainak dira nagusi (% 10-30); lurzoruak sakonak eta, oro har, emankorrak dira, ezaugarri fisiko aldakorrekin, oinarrian duten arroka-motaren arabera.

b) Malda handiko mendi-hegaletako lurrek substratu oso azidoak dituzte. Horren ondorioz, ez dira oso lodiak eta arroka ugari dago. Lurrok, produktibitate mugatua izateaz gain, arrisku naturaleko egoeran daude (arroaren goi-ibarrean daude eta sute-arrisku handia duten eguterako mendi-hegalak dira).

– La zona sometida al PORN del área de Armañón se sitúa en el extremo noroccidental del Territorio Histórico de Bizkaia, ocupando una superficie de 3.519 hectáreas, de las cuales 2.971 ha corresponden a la zona propuesta como Parque Natural y las 547 restantes a la Zona Periférica. Comprende parte de los municipios de Valle de Carranza y Trucios-Turtzioz, ambos en la comarca de Encartaciones.

– Presenta grandes diferencias de altitud. La zona de menor altitud es Venta La Perra, que constituye el límite oeste, situada a 118 metros sobre el nivel del mar. Superan los 800 metros la cota de Armañón (856 metros) y el Pico de Los Jorrios (836 m).

2.1.2.– Clima.

– El área ordenada, integrada en la Comarca de los Valles Atlánticos, es un territorio de elevada disponibilidad hídrica y temperaturas suaves. Las temperaturas medias anuales rondan los 11-13 ºC, mientras que la media de las máximas alcanza los 14-15 ºC y la media de mínimas ronda los 7,5-8 ºC.

– En cuanto al régimen de lluvias, como zona montañosa, se caracteriza por una nubosidad abundante y precipitaciones frecuentes, principalmente en forma de precipitaciones lluviosas, apareciendo esporádicamente la nieve en los puntos más altos. Las precipitaciones medias anuales se sitúan entre los 1.300 mm de ciertas zonas y los más de 1.700 de las montañas de Armañón y Los Jorrios.

2.1.3.– Gea.

– Los materiales aflorantes en el área ordenada pertenecen casi en su totalidad al Cretácico inferior, abarcando los períodos Aptiense y Albiense.

– Dentro de los materiales cretácicos se distinguen dos complejos representativos de muy diferentes ambientes sedimentarios, el Urgoniano y el Supraurgoniano o Albocenomanense.

– Entre los puntos de mayor interés geológico destacan la Torca del Carlista y la Cueva de Pozalagua.

– Existen una serie de indicios de actividad minera en el área ordenada, principalmente de calcita y en menor medida de caliza, arenisca y dolomía.

2.1.4.– Edafología y capacidad de uso.

Se distinguen en el área ordenada tres tipos de unidades edafológicas: Lomas y colinas, laderas de fuertes pendientes y zonas kársticas.

a) En las lomas y colinas, caracterizadas por unas pendientes moderadas (10-30%) se encuentran suelos profundos y, en general, fértiles, con características físicas variables según el tipo de roca del que procedan.

b) Los suelos de las laderas de fuertes pendientes se caracterizan por unos sustratos marcadamente ácidos, lo que produce escasos espesores y abundantes afloramientos rocosos. A su limitada productividad, se le añade su situación de riesgo natural (cabecera de cuenca, laderas de solana con elevado riesgo de incendio).

c) Zona karstikoen lurrak kareharri karstifikatuak disolbatzearen ondorioz eratzen dira, prozesu benetan motela. Zona hauetan nagusi diren lurrak ez dira oso lodiak eta garapen mugatua dute, etengabeko higaduraren eraginpean baitaude. Zona hauetako landaredi naturala artadi kantauriarra da, nahiz eta zona altu eta hotzagoetan pagadia den nagusi.

2.1.5.– Hidrologia.

– Antolatutako zona bi arro nagusitan banatzen da: Karrantza ibaiari dagokiona, hego-mendebaldeko sektorean, eta Aguera ibaiari dagokiona, ekialde eta iparraldeko zonan. Arro hauek, berriz, beste azpiarro batzuk dituzte:

• Karrantza ibaiaren arroa. Raneroko multzo karstikoaren arroa, azaleko drainatzerik gabekoa, eta Callejuelas eta Rioseco errekastoen arroak.

• Aguera ibaiaren arroa. Los Jorrios multzo karstikoaren arroa, azaleko drainatzerik gabekoa hau ere, eta Remendon, Valnero eta La Cubilla errekastoen arroak.

– Hain azalera gutxian hainbeste azpiarro egon arren, drainatze-dentsitate erreala oso txikia da; izan ere, Ranero eta Los Jorrioseko multzo karstikoak daude bertan eta urak, absortzio-sistema ezberdinetan zehar iragazi ondoren, lurpeko urekin bat egiten du.

– Errekastoak, beraz, gutxi dira eta orokorrean troka oso sakonetan daude. Karstifikatu gabeko materialetan erortzen diren euri-urez gain, lurpeko erregimenetik datozen ekarpenak ere biltzen dituzte; hala ere, ur-emariak, euri asko egiten duen sasoietan izan ezik, eskasak dira eta, beraz, errekasto gehienak urtarotarrak direla esan dezakegu.

– Ur-ibilgu nagusiak bi dira: Aguera ibaiarena, ekialdean, eta Karrantza ibaiarena, hegoaldean (azken hau antolatutako zonatik kanpo dago).

2.1.6.– Paisaia.

– Antolatutako eremua Bizkaiko mendebaldeko haranak biltzen diren zonan dago. Altueran dauden ezberdintasun nabarmenak direla eta, erliebea oso malkartsua da. Bertan Ranero, Armañon eta Los Jorrios harkaitz-multzoak dira nagusi, horien arteko mendilerroekin batera.

– Paisaia-mota ezberdinak aurki daitezke:

• Ipar-ekialdeko eta hego-mendebaleko muturretan, gainerako inguruan argi eta garbi gailentzen diren kareharrizko multzo handi eta malkartsuak daude. Oro har, malda handiko zonak dira eta ia zuhaitzik gabekoak, Los Jorrioseko artadiak uzten duen orban iluna kenduta.

• Zona baxuetan, bizkar-itxurakoa da topografia eta haranetan banatzen da. Landaredia oso heterogeneoa da eta giza jardueraren arrastoak ere agerian daude, batez

c) Los suelos de las zonas kársticas proceden de la disolución de las calizas karstificadas, siendo este un proceso particularmente lento. Los suelos dominantes en estas zonas son de escaso espesor, limitados en su desarrollo por la erosión continua a la que se encuentran sometidos. La vegetación natural de estas zonas se corresponde con el encinar cantábrico, que es sustituido por el hayedo en las zonas más altas y frías.

2.1.5.– Hidrología.

– La zona ordenada se divide en dos cuencas principales, la del río Carranza, en el sector suroccidental, y la del río Agüera, en la zona este y norte. Estas cuencas a su vez cuentan con diferentes subcuencas:

• Cuenca del Carranza. La cuenca del karst de Ranero, sin drenaje superficial, y las de los arroyos Callejuelas y Río Seco.

• Cuenca del Agüera. La cuenca del karst de Los Jorrios, también sin drenaje superficial, y las de los arroyos Remendón, Valnero y la Cubilla.

– Pese a existir tantas subcuencas en una superficie tan reducida, la densidad real de drenaje es muy escasa debido a la presencia de los karsts de Ranero y Los Jorrios, donde el agua se filtra a través los diferentes sistemas de absorción, pasando a formar parte de la escorrentía subterránea.

– Los arroyos, por tanto, son escasos y se encuentran por lo general fuertemente encajados. Recogen tanto el agua de lluvia que cae sobre materiales no karstificados, como los aportes procedentes del régimen subterráneo; sin embargo, los caudales, salvo en períodos de lluvias muy continuadas, son reducidos, de modo que la mayoría de los arroyos tienen carácter estacional.

– Los cursos de agua principales son los del río Agüera en el este y el río Carranza, fuera de la zona ordenada, en el sur.

2.1.6.– Paisaje.

– El área ordenada se localiza en la zona de valles occidentales de Bizkaia. Las grandes diferencias de altitud originan un relieve muy abrupto que está dominado por las masas de Peñas de Ranero, Armañón y Los Jorrios, junto con los cordales entre ellos.

– Se pueden identificar diversos tipos de paisaje:

• En los extremos nororientales y suroccidentales existen importantes y abruptas masas calizas que destacan netamente sobre el entorno circundante. En general son zonas de pendientes muy fuertes, con escasa vegetación arbórea, salvo la gran mancha oscura del encinar de Los Jorrios.

• Las zonas bajas están constituidas por una topografía alomada, cortada por valles. La vegetación presenta una importante heterogeneidad, y los signos de

ere biztanle-guneak daudelako eta larre artean banatuta abeltzaintzako eraikuntza ugari aurki daitezkeelako.

• Zona zentral gorenean zuhaitzik gabeko silizezko gailurrek bizkar-itxurako erliebeak dituzte.

– Remendoneko sakana dagoen enklabean, antolatutako zonaren iparraldean, zona horretako baso autoktonoko sailik handiena dago, Los Jorrioseko multzo karstikoaren pareta zuriek eta El Cuadro haitzak mugatuta.

2.1.7.– Landaredia.

Zona honetako landareak batez ere eurosiberiarrak eta zirkunborealak dira. Landaredi potentziala honakoek osatzen dute:

• pagadiak goialdeetan,
• hariztiak beheko aldeetan eta lurrak sakonak diren lekuetan,
• ameztiak pagadiak dauden altuera-tarte berean, baina lurzoru hareatsu edo oso eguzkitsuetan, eta
• artadiak kareharria nagusi den enklabe jakinetan.

– Gizakiak etengabe erabili ditu baliabideok eta, ondorioz, landaredi potentziala aldatu egin da. Remendonen izan ezik, oro har oso pagadi, amezti eta artadi gutxi dago, potentzialki askoz ere gehiago egon litezkeen arren. Gaur egun honakoak dira nagusi: sega-belardiak eta birlandaketak beheko aldeetan, artadiak Los Jorrioseko mendi-hegaletan eta Sopeñako haitzean, belardi eta txilardiak silizezko gailurren zonan, hariztia Remendonen eta larre harritarrak Los Jorrios eta Raneroko multzo karstikoetan.

– Aztertutako aldean interes komunitarioko zortzi habitat-mota identifikatu dira; lur-eremuaren % 70 hartzen dute. Habitat adierazgarrienak honakoak dira:

• 4030. Txilardi lehorrak.
• 6210. Larre lehor erdinaturalak eta substratu karetsuetako sastraka guneak (Festuco Brometalia) (*paraje hauetako orkideak aipagarriak dira).
• 8210. Harkaitzak. Kareharriaren azpimotak.
• 9340. Quercus Ilex-en basoak.
• 6510. Garaiera txikiko mozketa larreak (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis).

8310 habitata, «turismoak ustiatu gabeko leize»ei dagokiena: nahiz eta leizeek betetzen duten azalera erlatiboa urria izan, oso ugaria da antolatutako aldean (200 leize eta zulo katalogatu baino gehiago daude) eta berebiziko garrantzia du 92/43 Zuzentarauko II. eranskineko espezieak kontserbatzeko.

Interes komunitarioko habitat-moten banaketa 1. mapan irudikatuta dago.

2.1.8.– Fauna.

actividad humana son patentes, especialmente debido a la presencia de núcleos habitados y de abundantes construcciones ganaderas distribuidas entre los prados.

• La zona central más alta está constituida por relieves alomados de las cumbres silíceas desprovistos de vegetación arbórea.

– En el enclave del barranco de Remendón, situado al norte de la zona ordenada se encuentra la mayor masa de bosque autóctono del área ordenada, enmarcada por las paredes blancas del karst de Los Jorrios y la Peña del Cuadro.

2.1.7.– Vegetación.

Los elementos que constituyen la vegetación que cubre el área son en su mayoría eurosiberianos y circumboreales. Su vegetación potencial es la siguiente:

• hayedos en las zonas altas,
• robledales en las bajas y con suelos profundos,
• marojales en el rango altitudinal de los hayedos, pero en suelos arenosos o de insolación importante, y
• encinares en enclaves concretos sobre caliza aflorante.

– La intensa utilización por parte del ser humano ha modificado la vegetación potencial. Los hayedos, los marojales y los robledales (salvo la excepción de Remendón) han quedado muy reducidos con respecto a su máxima representación potencial. Los elementos actuales más representativos son los prados de siega y las repoblaciones en la zona baja, los encinares en la ladera de Los Jorrios y peña Sopeña, las praderas y brezales de la zona de cumbres silíceas, el robledal localizado en el Remendón y los pastos petranos en los karts de Los Jorrios y Peñas de Ranero.

– En el área de estudio se han identificado ocho tipos de hábitats de interés comunitario, que cubren más del 70% del territorio. Los hábitats más representados son:

• 4030. Brezales secos.
• 6210. Prados secos semi-naturales y facies de matorral sobre sustratos calcáreos (Festuco Brometalia) (*parajes con notables orquídeas).
• 8210. Roquedos. Subtipos calcáreos.
• 9340. Bosques de Quercus ilex.
• 6510. Prados de siega de baja altitud (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis).

El hábitat 8310, correspondiente a «cuevas no explotadas por el turismo», a pesar de la escasa superficie relativa que ocupan, son muy abundantes en el ámbito ordenado (existen más de 200 cuevas y simas catalogadas), y poseen una importancia trascendental para la conservación de especies del anexo II de la Directiva 92/43.

La distribución de los tipos de hábitats de interés comunitario se muestra en el Mapa 1.

2.1.8.– Fauna.

– Argi dago antolatutako aldeko faunak jatorri zentroeuroparra eta atlantiarra duela, nahiz eta zenbait espezie mediterranearragoak diren, batez ere espazio ireki eta eguzkitsuetan. 2. mapak antolatutako aldeko faunari dagokionez interesik handieneko guneak erakusten ditu.

– Besteak beste, honako espezieak aipa daitezke: erbinude zuria (Mustela erminea), Schreiber muskerra (Lacerta schreiberi) sator itsua (Talpa occidentalis), elur-lursagua (Microtus nivalis), aztore arrunta (Accipiter gentilis), belatz handia (Falco peregrinus), sai zuria (Neophron percnopterus), hontz handia (Bubo bubo) eta lepahoria (Martes martes).

– Antolatutako aldea interes faunistikoko korridorea da, Kantauriko erlaitzean nagusi diren ornodunen populazioak EAEkoekin harremanetan jartzen baititu. Horri esker, adibidez, orkatzen (Capreolus capreolus) koloniak eratu ditu berriz ere eta otsoak (Canis lupus) ekialderago dauden populazio-guneak utzi ditu eta noizean behin inguru hauetan ikusi ahal izan dugu.

– Zonak kiroptero ugari biltzen ditu. NBAPren eremuan 12 espezie identifikatu dira.

– Kiropteroak dira, zehazki, alde honetan interes komunitarioko espezie-kopuru gehien dituena. Horietatik 6 espezie Habitatei buruzko Zuzentarauko II. eranskinean barneratuta daude. Honakoak dira:

– Ferra-saguzar mediterraneoa (Rhinolophus euryale).
– Ferra-saguzar handia (Rhinolophus ferrumequinum).
– Ferra-saguzar txikia (Rhinolophus hipposideros).
– Schreiber saguzarra (Miniopterus schreibersii).
– Geoffroy saguzarra (Myotis emarginata).
– Saguzar arratoi-belarri handia (Myotis myotis).

– Horrez gain, antolatutako aldean badira eranskin horretan biltzen diren beste bi espezie ere:

– Arkanbelea (Lucanus cervus)
– Quimper barraskiloa (Elona quimperiana).
– Espezie horietatik guztietatik Rhinolophus euryale da interes gehien duena, arrisku handian baitago eta populazioa oso txikia baita. NBAPren eremuan dago espezie horrek EAEn duen babesgune nagusia eta Kantauriko erlaitzean daudenen artean garrantzitsuenetakoa da.

2.2.– Gizarte-ingurunea.

2.2.1.– Jabetzaren banaketa.

– Parke Naturaleko zonaren % 98,9 jabetza publikokoa da; zona periferikoan, ordea, ia ez dago.

2.2.2.– Biztanleria.

– Ranero da antolatutako aldean dagoen biztanlegune bakarra.

– La fauna del área ordenada es de origen claramente centroeuropeo y atlántico, con algunas especies de carácter más mediterráneo, que aparecen en los espacios abiertos y soleados. El Mapa 2 muestra los enclaves de mayor interés faunístico del ámbito ordenado.

– Es característica la presencia del armiño (Mustela erminea), el lagarto verdinegro (Lacerta schreiberi), el topo occidental (Talpa occidentalis), la ratilla nival (Microtus nivalis), el azor (Accipiter gentilis), el halcón peregrino (Falco peregrinus), el alimoche (Neophron percnopterus), el búho real (Bubo bubo), o la marta (Martes martes).

– El área ordenada constituye un corredor de interés faunístico que pone en comunicación las poblaciones de vertebrados de la cornisa cantábrica con la CAPV, lo que ha fomentado la recolonización del corzo (Capreolus capreolus), así como las incursiones esporádicas del lobo (Canis lupus) desde los núcleos poblacionales situados más al oeste.

– La zona tiene un marcado interés para los quirópteros, habiendo sido citadas 12 especies en ámbito del PORN.

– Es precisamente el grupo de los quirópteros el que presenta un mayor número de especies de interés comunitario. Concretamente se han citado 6 especies incluidas en el anexo II de la Directiva de Hábitats:

– Murciélago mediterráneo de herradura (Rhinolophus euryale).
Murciélago grande de herradura (Rhinolophus ferrumequinum).
– Murciélago pequeño de herradura (Rhinolophus hipposideros).
– Murciélago de cueva (Miniopterus schreibersii).
– Murciélago ratonero pardo (Myotis emarginata).
– Murciélago ratonero grande (Myotis myotis).

– Además, en el área de ordenada se conoce de la presencia de otras dos especies incluidas en dicho anexo:

– Ciervo volador (Lucanus cervus).
– Caracol de Quimper (Elona quimperiana).
– De todas estas especies es Rhinolophus euryale la que presenta mayor interés dado el grado de amenaza de la misma y el tamaño de la población. En el ámbito del PORN se encuentra el refugio principal de esta especie en la CAPV y uno de los más importantes de la cornisa cantábrica para la misma.

2.2.– Medio social.

2.2.1.– Distribución de la propiedad.

– La propiedad pública alcanza el 98,9% de la zona de Parque Natural, mientras que es prácticamente inexistente en la zona periférica.

2.2.2.– Población.

– Ranero es el único núcleo habitado en el interior del área ordenada.

– Antolatutako aldeko egoera demografikoa nekazaritzan oinarritutako egitura sozioekonomikoari dagokiona da. Besteak beste, honako ezaugarriak ditu:

• Biztanle-dentsitate txikia.
• Bilakaera demografiko negatiboa.
• Biztanleriaren zahartzea.
• Lehen sektorearen nagusitasuna udalerriko egitura ekonomikoan.
• Langabeziak duen eragina, Karrantzan txikiagoa izan arren.

2.2.3.– Ondare historiko eta kulturala.

– Antolatutako aldeko kultur ondarean barneratzen diren elementuen artean, batez ere historiaurreko arrastoen multzoari dagozkionak aipa daitezke, beren kopuru eta garrantziagatik. Honakoak dira:

• Venta La Perrako multzoa. Zortzi grabatu dira. Nahiko ongi kontserbatzen dira eta multzoan dauden kobetako baten atarian daude. Venta La Perrako Haitzuloa sailkatutako kultur ondarea da.

• Karrantzako udalerrian balizko arkeologia-gunetzat sailkatutakoen artean, antolatutako esparruaren ingurunean dago San Ziprianoren eliza.

• Azaleko multzo megalitikoak: Karrantza eta Turtziozko haranak eta beste haran eta lur-eremu batzuk bereizten dituzten mendilerro gehienetan jatorria historiaurrean duten azaleko elementu-talde ugari aurki daitezke: harrespilak, tumuluak, trikuharriak... Galupa (I, II, IV eta V), Campo Diego, Armañon I eta La Lamako trikuharriez gain, Picosal II eta Carcelaresko tumuluak aipa daitezke.

• Bestelako elementuak: horiez gain, antolatutako aldean badira bestelako elementu batzuk ere. Basinagre-tik gertu dagoen artadian, adibidez, aztarnategi-multzoa dago. Horiek kontserbazio-egoera ezberdinetan daude, kobara iristea errazagoa edo zailagoa izatearen arabera; hala ere, orokorrean ez dago aldaketa-arazo handirik. Aurkikuntza bakan ugari izan dira zona honetan eta horiei esker, multzo megalitikoekin zerikusia duten antzinako herriak bertan kokatu zirela frogatu da.

2.3.– Baliabideak.

– Armañon aldeko baliabideak batez ere lehen sektorearen bidez ustiatzen dira. Hori horrela, 2001eko datuen arabera, biztanleria okupatuaren banaketa sektoreka honakoa da bi udalerrietan:

– La situación demográfica en el área ordenada es la típica de una estructura socioeconómica rural, caracterizada entre otros por los siguientes aspectos:

• Escasa densidad poblacional.
• Evolución demográfica negativa.
• Envejecimiento de la población.
• Importancia del sector primario en la estructura económica del municipio.
• Incidencia del desempleo, menor en el caso de Valle de Carranza.

2.2.3.– Patrimonio histórico-cultural.

– De entre todos los elementos que conforman el patrimonio cultural del área ordenada, destacan principalmente, por su número e importancia, los incluidos dentro del conjunto de restos prehistóricos, que se citan a continuación:

• Conjunto de Venta La Perra. Se trata de un conjunto de ocho grabados, relativamente bien conservados, localizados en la antesala de una de las cuevas que forman el conjunto. La Cueva de Venta La Perra constituye un bien cultural calificado.

• Entre las zonas de presunción arqueológica declaradas en el municipio de Valle de Carranza, la iglesia de San Cipriano se ubica en la zona periférica del ámbito ordenado.

• Conjuntos megalíticos de superficie: gran parte de los cordales que separan los valles de Carranza y Trucios-Turtzioz con otros valles y territorios cuentan con la presencia de importantes grupos de elementos prehistóricos de superficie: cromlechs, túmulos, dólmenes... Pueden mencionarse los dólmenes de Galupa (I, II, IV y V), Campo Diego, Armañón I y La Lama, así como los túmulos de Carcelares y Picosal II.

• Otros elementos: existen asimismo, en el área ordenada, caso por ejemplo del encinar cercano a Basinagre, una serie de cavidades con yacimiento, cuyo estado de conservación varía en función de la mayor o menor accesibilidad de la cueva, aunque en general no existan grandes problemas de alteración. Numerosos hallazgos aislados jalonan asimismo la zona, poniendo en evidencia la existencia de antiguos asentamientos relacionados con los conjuntos megalíticos.

2.3.– Recursos.

– La principal forma de explotación de los recursos en el área de Armañón es el sector primario. Así, según datos de 2001, la distribución de la población ocupada según sectores en ambos municipios era:

| | Guztira | Nekazaritza | Industria | Zerbitzuak | Eraikuntza |
|---|---|---|---|---|---|
| Karrantza | 1.081 | % 34 | % 10 | % 44 | % 12 |
| Turtzioz | 174 | % 15 | % 22 | % 49 | % 14 |
| Bizkaia | 441.967 | % 1,5 | % 23,6 | % 65,6 | % 9,3 |

| | *Total* | *Agricultura* | *Industria* | *Servicios* | *Construcción* |
|---|---|---|---|---|---|
| *Valle de Carranza* | *1.081* | *34%* | *10%* | *44%* | *12%* |
| *Trucios-Turtzioz* | *174* | *15%* | *22%* | *49%* | *14%* |
| *Bizkaia* | *441.967* | *1,5%* | *23,6%* | *65,6%* | *9,3%* |

2.3.1.– Nekazaritzako sektorea.

– Antolatutako aldeak landa-izaera nabaria du eta ustiapenak oro har Bizkaiko gainerakoak baino zabalagoak dira. Nekazaritzako erabilerei dagokienez, abeltzaintzakoa da nagusi, Karrantzan gehiago Turtziozen baino. Karrantzako abeltzaintzan batez ere behi-azienda da oinarria, zehazki esnetarako behi-azienda.

– Antolatutako aldean dugun abeltzaintzak zalantzarik gabe ingurumen-balio ugari ditu, horien artean landazabala, abeltzaintzarekin zuzeneko erlazioa duen paisaia-egitura. Abeltzaintzak aldeko nekrofagoen populazioak eta gailurretako landare-sailak mantentzen ditu.

– Ingurumen-arazoak ere badakartza, ordea, honakoak izanik nagusienak: ibaietara mindak isurtzea, hildako animaliak leize eta kobetan abandonatzea eta azienda zona hauskorretan eta malda handiko zonetan larreratzea.

2.3.2.– Basogintzako sektorea.

– Antolatutako lur-eremuan basogintzako erabilera bertan kokatzen diren onura publikoko hiru basoei dagokie gehienbat. Azkar zein mantso hazten diren espezie-masak batera aurki ditzakegu.

b) Suaren erabilpen estentsiboa egitea debekatuta egongo da, bai mendia garbitzeko, bai beste zeregin batzuetarako. Dena dela, sua erabili ahal izango da, baldin eta erre aurretik hondakinak piloetan jarri badira, eta horiek erretzerakoan sua itzaltzeko talde bat badago aurrean.

c) Bertako basoei dagokienez, egun dauden sailak zainduko dira eta ahaleginak egingo dira horien egitura hobetu eta azalera gehitzeko. Arreta berezia egingo zaie Remendongo hariztiari eta Sopeñako artadiari. Birlandaketetan bertako espezieak erabiltzen badira, inguruan biltzen diren hazietatik lortutakoak izango dira, gune horretan egon daitezkeen barietateak gordetzeko.

d) Landazabaletan dauden heskaiak eta zuhaiztiak babestuko dira eta lur-eremuen mugetan ere halakoak jartzea bultzatuko da, zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak erabiliz. Laguntza eta neurri espezifikoak ezarriko dira plan honen helburuak gauzatzeko, alegia, nekazaritza eta ingurumeneko tresnak garatzea [NPB aldatzen duten 1992ko 2078 eta 2080 (EEE) Erregelamenduen edo horiek ordezten dituzten beste batzuen esparruan] eta landa-eremua garatzea.

e) Goi-larreetan, egungo erabilerari eutsiko zaio eta gehiegizko larratzea saihestuko da. Aziendek errekastoetatik eta istildutako zonetan edatea saihestuko da, eta horretarako, edaskak egin eta mantenduko dira. Kasu horietan, zona horiek kontserbatzeko adinako emari librea mantenduko da. Ez dira hondakinak, olioak, produktu zoosanitarioak eta abar isuriko.

f) Aldearen antolamendua egiteko orduan, fauna-populazioak zainduko dira, bai bertako espezieei dagozkienak, bai eta bertako barietateei dagozkienak ere.

g) Faunaren kontserbazioa eta babesa ingurune horretan garatu ohi diren jarduerak behar bezala kudeatzean datza; alegia, horiek duten eragina ezabatu edo zuzentzean. Ekintza espezifikoak egingo dira arriskuan

de integrar esta actividad tradicional en el marco del potencial didáctico de la zona.

c) Los bienes culturales calificados o inventariados, así como las zonas de presunción arqueológica, gozarán en todo caso del régimen de protección previsto en el Título III de la Ley 7/1990, de patrimonio cultural vasco, y en sus respectivas normativas de declaración. Asimismo, a los que puedan ser calificados o inventariados en el futuro se les aplicará el régimen de protección que les corresponda en virtud del presente PORN, de la Ley 7/1990 y de su propia norma de declaración.

7.2.– Criterios de ordenación en función de la conservación de los recursos naturales.

7.2.1.– Flora y fauna.

a) Se procurará el mantenimiento, tanto cualitativo como cuantitativo, de los usos que se hacen actualmente de la vegetación natural, con las salvedades contenidas en este Plan de Ordenación.

b) No se permitirá el uso extensivo del fuego para la limpieza del monte o cualquier otro cometido. No obstante, para el uso forestal se permitirá su utilización previa preparación de los restos de la tala en montones y con la presencia de un retén.

c) En cuanto a los bosques autóctonos, se velará por el mantenimiento de las masas actuales, mejorando su estructura y aumentando su superficie. Atención especial merecen el robledal de Remendón y el encinar de Sopeña. Cuando deban realizarse repoblaciones con espacies autóctonas, éstas deberán ser obtenidas a partir de semillas recogidas en el entorno, para de este modo preservar las posibles variedades locales.

d) Se procurará el mantenimiento de los setos y bosquetes de la zona de campiña, incentivando su creación en los lindes de los terrenos, utilizando para ello arbustos y árboles autóctonos. Se establecerán ayudas y medidas específicas para el logro de los objetivos de este plan por del desarrollo del instrumentos agroambientales [en el marco de los Reglamentos (CEE) 2078 y 2080 de la reforma de la PAC de 1992, u otros que los sustituyan] y de desarrollo rural.

e) En los pastizales de altura, se mantendrá el uso actual, evitando el sobrepastoreo. Se evitará que el ganado abreve en los riachuelos y zonas encharcadas, mediante la construcción y mantenimiento de abrevaderos. En estos casos se mantendrá un caudal libre suficiente para la conservación de estas zonas. Se evitará el vertido de basuras, aceites, productos zoosanitarios.

f) La ordenación del área deberá asegurar que se conserven las poblaciones de fauna, incluyendo en este concepto tanto a las especies como a las variedades locales.

g) La conservación y protección de la fauna se basará en la correcta gestión de las actividades que se desarrollan en el medio, eliminando o corrigiendo los impactos que se produzcan. Se procederá a la realización

dauden espezieak babesteko. Horien artean kiropteroen babesguneak babesteari dagokiona aipa dezakegu. Izan ere, bandalismoko ekintzek edo bisitek arriskuan jar ditzakete gune horiek; hortaz, komenigarria litzateke barrunbeak burdin-sare horizontalekin inguratzea.

h) Ahalegin berezia egingo da aisiako jarduerek habiagintzako zonen inguruetan sor ditzaketen arazoak murrizteko; behar izanez gero, horietara sartzea mugatuko da.

i) Ez da barneratuko eskualde horretakoa ez den fauna espezierik. Espezie-populazioak berriro bertan sartu edo indartu behar izanez gero, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuari dagozkion programa espezifikoekin bat etorriz jardungo da eta ekintza horiek ingurune biologiko eta sozialean duten eragina ebaluatuko da.

j) Agiri honek egiten duen antolamendua bateragarria da espazioa Natura 2000 sarean sartzeak dakartzan betebeharrekin, nahiz eta alderdi jakin batzuk kudeaketa-tresna espezifikoen bidez landu beharko diren.

k) Interes komunitarioko habitat gehienak Erreserba-zonetan eta Kontserbazio aktiboko zonetan ditugu. Aurreikusitako antolamenduak zona horiei ematen die babes-maila altuena. Hala ere, alde horietatik kanpo ere badira zenbait habitat oso zehatz eta lekutu eta, beraz, beharrezkoa izango da horien babes-premiak kontuan hartzea obra edo proiektu zehatzak egiteari begira. Honetarako, antolatutako alde osoan habitat berezi hauen inbentarioa burutzea bultzatuko da. Edonola ere, NBAPren eremuan garatzen diren jarduerek ez dute arriskuan jarriko eremu honetan interes komunitariokoak diren habitat-moten aldeko kontserbazio-egoera mantentzea. Habitat naturalaren kontserbazio-egoera aldekoa izango da honakoetan:

• Banaketa-eremu naturala eta bertan dauden azalerak egonkorrak direnean edo zabaldu egiten direnean.

• Epe luzean mantentzeko beharrezkoak diren egitura eta funtzio espezifikoak badaudenean eta etorkizunean ere egon ahal izango badira.

• Habitat horietako espezie tipikoen kontserbazio-egoera aldekoa denean.

l) Egoera antzekoa da taxonei dagokienez, nahiz eta horietako batzuen kasuan, garapen-zikloa osatzeko zona zabalak behar dituztenez, nahitaez elikatze- eta atseden-zonak ere kontuan hartu behar diren, habiagintza, ugalketa edo babesteko zonekin batera.

m) Habitat-motekin gertatzen den bezala, NBAPren eremuan garatzen diren jarduerek ez dute arriskuan jarriko eremu honetan interes komunitariokoak diren espezieen aldeko kontserbazio-egoera mantentzea. Espe-

de acciones específicas para la protección de especies que así lo requieran, por ejemplo la protección de refugios de quirópteros amenazados por actos de vandalismo o visitas, gracias el cierre de las cavidades mediante sistemas de verjas horizontales.

h) Se será especialmente sensible para reducir las molestias que debido a la actividad recreativa, se pueden ocasionar en las proximidades de los lugares de nidificación, limitando incluso el acceso a los mismos.

i) Se evitará la introducción de especies ajenas a la fauna del territorio. Cuando se produzcan reintroducciones o refuerzos poblacionales, éstos se acometerán en el marco de programas específicos en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia, evaluándose la incidencia que supondrá sobre el medio biológico y social.

j) La ordenación que realiza este documento es compatible con las obligaciones derivadas de la inclusión de este espacio en la red Natura 2000, si bien determinados aspectos deberán ser abordados desde instrumentos específicos de gestión.

k) La mayor parte de los hábitats de interés comunitario se encuentran dentro de las zonas de Reserva y Conservación Activa, donde la ordenación prevista establece los máximos niveles de protección. No obstante, algunos hábitats muy particulares y localizados pueden ubicarse fuera de esas áreas, por lo que será necesario tener en cuenta sus necesidades de protección de cara a la realización de obras o proyectos concretos. Con este fin, se promoverá la realización de un inventario de estos hábitats singulares en la totalidad del ámbito ordenado. En cualquier caso, cualquier actuación que se realice en el ámbito del PORN no podrá poner en peligro el mantenimiento en un estado de conservación favorable a los tipos de hábitats de interés comunitario en el ámbito de este instrumento. El estado de conservación de un hábitat natural se considerará favorable cuando:

• Su área de distribución natural y las superficies comprendidas dentro de dicha área sean estables o se amplíen.

• La estructura y las funciones específicas necesarias para su mantenimiento a largo plazo existan y puedan seguir existiendo en un futuro previsible.

• El estado de conservación de sus especies típicas sea favorable.

l) La situación es semejante en cuanto a los taxones, si bien la peculiaridad de algunas de ellos, que necesitan zonas amplias para completar sus ciclos vitales, obliga a tomar en consideración, además de sus puntos de nidificación, cría o refugio, las zonas de alimentación y reposo.

m) De igual modo que en el caso de los tipos de hábitats, cualquier actuación que se realice en el ámbito del PORN no podrá poner en peligro el mantenimiento en un estado de conservación favorable de las espe-

ziearen kontserbazio-egoera aldekoa izango da honakoetan:

• Espezie bateko populazioen dinamikari buruzko datuek garbi uzten dutenean espeziea bere habitat naturalean bizitza-elementua dela eta epe luzean hala izaten jarraituko duela.

• Espezieari dagokion banaketa naturaleko aldea murrizten ari ez denean edo etorkizunean murrizteko arriskuan ez dagoenean.

• Bere populazioak epe luzean mantentzeko moduko habitat zabala badagoenean eta egoten jarraituko duenean.

n) Santa Isabel kobatik bost kilometro baino gutxiagora dauden eraikinen birmoldaketa egiterakoan, zura zomorroen aurka tratatzeko permetrinak eta zipermetrinak erabiliko dira organokloratu edo organofosforatuen ordez.

o) Santa Isabel kobazuloaren inguruan, 5 kilometroko bueltan intsektizida inespezifikoen (diflurobetzuron, Bacillus thuringiensis, etab.) bidezko baso-tratamenduak saihestuko dira. Parkeko organo kudeatzaileak Patronatuari informatuko dio arau horren aplikazioaren balizko salbuespenei buruz.

p) Santa Isabel kobatik 5 kilometro baino gutxiagora dagoen lur-eremuan, itsas-mailatik 500 metro baino beheragoko zonan, bertako espezie kaduzifolioez eratutako baso, zuhaizti eta heskaiek 500 ha hartzea bermatuko da. Baso, zuhaizti eta heskai horiek konposizio espezifikoa eta egitura ezberdinak izango dituzte eta guztira 200 km-ko perimetroa izango dute. Egitura horien azalera ez da 40 km2 baino gehiagokoa izango, horrela, baliabideak gehiegi zabaltzea saihestuko baita.

q) Espezie arrotzak bertako espezieen bitartez ordezkatzea egokiro sarituko da.

r) Nekazaritzako partzelak kaduzifolioez eratutako heskaiekin inguratzea sustatuko da. Heskai horiek mota ezberdinetakoak izango dira bai ikuspegi espezifikotik, bai egituraren ikuspegitik ere, zuhaixkak, sasiak eta espezie ezberdinetako zuhaitzak izango baitituzte.

s) Zuhaitz zaharren kontserbazioa sustatuko da. Zuhaitz zaharren, eta zuloak edo arrakalak dituztenen ustiapena murriztuko da, bai mozketak edo egurraren aprobetxamenduak egiterakoan.

t) Aldizka landarediari eta faunari buruzko ikerketak burutuko dira, kontserbazio arrisku handieneko elementuen eboluzioa eta egoera zehazteko.

7.2.2.– Baliabide hidrologikoak.

a) Azaleko zein lurpeko uren kalitatea jagongo da. Horretarako, eragotzi egingo dira urrakortasun handiko edo oso handiko akuifero-zonetan eta ibilguetan

cies de interés comunitario que habitan el ámbito de este instrumento. El estado de conservación de una especie se considerará favorable cuando:

• Los datos sobre la dinámica de las poblaciones de la especie en cuestión indiquen que la misma sigue y puede seguir constituyendo a largo plazo un elemento vital de los hábitats naturales a los que pertenezca.

• El área de distribución natural de la especie no se esté reduciendo ni amenace con reducirse en futuro previsible.

• Exista y probablemente siga existiendo un hábitat de extensión suficiente para mantener sus poblaciones a largo plazo.

n) Se promoverá la sustitución de los organoclorados u organofosforados por permetrinas o cipermetrinas en los tratamientos insecticidas de la madera en la remodelación de edificios situados a una distancia inferior a cinco kilómetros de la cueva de Santa Isabel.

o) Se evitarán los tratamientos forestales mediante insecticidas inespecíficos (diflurobenzurón, Bacillus thuringiensis, etc.) en la superficie situada a una distancia inferior a cinco kilómetros de la cueva de Santa Isabel. El órgano gestor del Parque informará al Patronato de las posibles excepciones a la aplicación de esta norma.

p) En el territorio situado a menos de 5 kilómetros de la cueva de Santa Isabel y por debajo de los 500 m s.n.m., se garantizarán 500 ha de bosques, bosquetes y setos de especies autóctonas caducifolias, de composición específica y estructura diversa, de manera que el perímetro total de dichas formaciones supere los 200 km. Las mencionadas estructuras deben aglutinarse en una superficie no superior a 40 km2, con el fin de evitar una excesiva dispersión de recursos.

q) Se primará adecuadamente la sustitución de las plantaciones de especies exóticas por especies autóctonas.

r) Se potenciará la existencia de parcelas agrícolas rodeadas por setos de caducifolios, diversos desde el punto de vista específico y estructural (constituidos por arbustos, maleza y árboles de distintas especies).

s) Se promoverá la preservación de los árboles viejos. Se restringirá el aprovechamiento, en forma de leñas o talas, de los árboles añosos, con agujeros, grietas o huecos.

t) Se realizarán periódicamente estudios botánicos y faunísticos que determinen el estatus y la evolución de los elementos y ambientes de flora y fauna con mayores riesgos de conservación.

7.2.2.– Recursos hidrológicos.

a) Se preservará la calidad del agua, tanto superficial como subterránea, evitando vertidos y el desarrollo de actividades potencialmente contaminantes en las zonas

isurketak eta kutsakorrak izan daitezkeen jarduerak egitea.

b) Uren Legeak definitzen dituen ertzak, ibilguak eta ur-bazterrak kontserbatuko dira. Murriztu egingo dira inguru horietako egituraren eta landarediaren aldaketa ekar dezaketen obra-eraginak.

c) Errekastoetako ertzen eta goi-ibarren zuhaitz-estalki naturala lehengoratzeko eta bere horretan eusteko ahaleginak egingo dira.

d) Plangintza hidrologikoa egingo da. Lan horretan, ibai edo ur-bazterretan ikus daitezkeen ur-guneak, hartuneak, garraiobideak, unean uneko isurketak eta aldaketak inbentariatuko dira.

7.2.3.– Paisaia.

a) Eskualdean burutu beharreko jarduerek, bai azpiegiturek, eraikinek, zein bestelakoek, zaindu egin beharko dute paisaian izan dezaketen eragina, ahalik eta txikiena izan dadin. Era berean, zona hauskorrenetan eragina izan dezakeen edozein jarduera-mota egitea mugatuko da.

b) Paisaiaren aldetik okerren dauden zonak lehengoratu egingo dira, hala nola, Pozalaguako harrobia, hondakindegia eta erantsitako instalazioak.

7.2.4.– Lurra.

a) Antolatutako aldean burutu daitezkeen jarduerak aintzat hartuko dute, batez ere, lur baliabidearen kontserbazioa; oso kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak eliminatuko dira.

b) Lur-galerak ahalik eta gehien murrizte aldera, zona hauskorrenak, bereziki % 50etik gorako malda dutenak, garapen-ziklo ertaineko/luzeko zuhaitzez estaliko dira. Leku batzuetan espezieak aldatzea eragingo du horrek eta, zuhaitzik ez dagoen lekuetan, berriz, zuhaitzak landatzea.

7.2.5.– Baliabide espeleologikoak.

a) Antolatutako aldeak espeleologiaren ikuspegitik duen aberastasuna zainduko da eta azalean zein barrunbeetan egiten diren erabilera eta jarduerek hori andeatzea saihestuko da.

b) Kobak aisialdirako erabiltzeak ekosistema hipogeoetan eta bisitarien segurtasunean eraginik izan ez dezan neurriak hartuko dira.

c) Interesgarria izan daitekeen informazio espeleologikoa aldeko balioak hedatzera bideratutako tresnetan integratuko da, funtsean, argitalpenetan.

d) Ondare espeleologikoari dagozkion elementuak kontserbazio-egoera egokian mantenduko dira. Horretarako, beharrezko garbiketa-jarduera eta lanak egin edo gainbegiratuko dira eta elementuon osotasuna arriskuan jartzen duten erabilera eta jarduerak baztertuko dira.

de vulnerabilidad de acuíferos alta o muy alta, así como en los propios cauces.

b) Se conservarán los márgenes, cauces y riberas de los cursos de agua así definidos por la Ley de aguas, minimizando los impactos por obras que supongan la modificación de la estructura y vegetación de los mismos.

c) Se favorecerá la restauración y el mantenimiento de la cubierta arbórea natural de los márgenes y cabeceras de los arroyos.

d) Se realizará una planificación hidrológica, mediante la inventariación de puntos de agua, captaciones, conducciones, vertidos ocasionales y modificaciones realizadas en cauces y riberas.

7.2.3.– Paisaje.

a) Todas aquellas actuaciones, tales como infraestructuras, edificaciones, etc., a acometer en la zona deberán observar su incidencia paisajística con el fin de que el impacto que generen sea el mínimo posible. Asimismo, se limitará la realización o instalación de cualquier tipo de actividad impactante en las zonas de mayor fragilidad.

b) Deberán acometerse labores de restauración en aquellas zonas paisajísticamente más degradadas tales como la cantera, escombrera y ruinas de las instalaciones anejas de Pozalagua.

7.2.4.– Suelo.

a) Las posibles actuaciones a realizar tendrán especialmente en cuenta la conservación del recurso suelo; eliminándose aquéllas que resulten especialmente perjudiciales.

b) Con el fin de minimizar las pérdidas de suelo, se protegerán las zonas más frágiles, especialmente aquellas con pendientes superiores al 50%, mediante cubierta arbórea de turno medio - largo, ya sea a través de cambio de especies o por la implantación de arbolado en zonas actualmente desprovistas.

7.2.5.– Recursos espeleológicos.

a) Se preservará la riqueza espeleológica del área ordenada, evitando su degradación, tanto por usos y actuaciones en superficie, como en el interior de las cavidades.

b) Se adoptarán medidas para prevenir las consecuencias sobre los ecosistemas hipogeos y sobre la seguridad de los visitantes que supone el uso de las cuevas con fines de recreo.

c) Se integrará la información espeleológica que pueda resultar de interés en aquellos instrumentos, publicaciones fundamentalmente, puestos al servicio de la difusión de los valores del área.

d) Se deberán mantener en correcto estado de conservación los elementos del patrimonio espeleológico, realizando o supervisando las actividades y trabajos de limpieza necesarios y evitando usos y actividades que atenten contra su integridad.

e) Egungo ekimenak edo beste erakunde eta/edo administrazioek abian jar lezaketen beste oro errespetatuz, erabilera publikorako interes gehien duten kobetara bisitak egitea sustatuko da eta, beharrezkoa bada, ekipamenduak instalatzea edo ez hartuko da kontuan. Halaxe egingo da bereziki Pozalaguako koban; hemen, gainera, ahaleginak egingo dira barrunbe honen ondoan gertatutako leherketen ondorioz desagertu ziren ur-laminak berreskuratzeko.

f) Kontrol-, zaintza- eta segurtasun-neurriak ezarriko dira neurriz bisitatu behar diren barrunbeetara sartzeko, ez bakarrik kobak eta leizeak egoki kontserbatzeko, bai eta bisitarien osotasun fisikoa bermatzeko ere.

g) Santa Isabeleko koba berreskuratzeko neurriak ezarriko dira (garbiketa, sartze-kontrola eta abar), kobak jasaten dituen andeatze-prozesuak etete aldera. Izan ere, bertara heltzea oso erraza da eta, ospe handia izateaz gain, oso ikusgarria ere bada.

h) Kobak erakusten espezialistak izango diren gidariak prestatzeko programak sustatuko dira, batez ere bertako biztanleei zuzenduta.

i) Azterlan espezifikoak egitea sustatuko da, batetik, ekosistema hipogeoak eta prozesu hidrogeologikoak babesteko beharrak hobeto ezagutzeko, eta, bestetik, esplorazio- eta garbiketa-kanpainak edo antolatutako aldeko barrunbeetan eragina izan dezaketen bestelako kanpainak garatzeko. Zereginok burutzeko, arloan izen handikoak diren erakundeen lankidetza izatea bilatuko da.

j) Aldeko barrunbeen inbentarioa eguneratzea proposatzen da. Hori egin ahal izateko, aldean dagoeneko ezagutzen diren barrunbeen inbentario espezifikoa egingo da eta bertan aurkikuntza berri guztiak ere bilduko dira. Inbentarioak Karrantza eta Turtziozko udalerriei dagokien lur-eremu osoa hartu beharko luke gutxienez.

k) Kiropteroen koloniek bizi dituzten kontserbazioegoera eta beharrak ezagutzeko azterlanak egitea proposatzen da. Azterlan horiek, ondoren, espezie horien Hazkuntza-plana prestatzeko erabiliko dira.

l) Ondare espeleologikoko elementuak aztertzera datozen ikertzaileen sartu-irtenak arautu eta kontrolatuko dira.

7.3.– Lurraldearen zonabanatzearen arabera antolatzeko irizpideak.

7.3.1.– Erreserba-zona.

• Enklabe hau kontserbatu eta zainduko da.

• Santa Isabeleko babesgunearen erreserbatzat joko da, sistema hipogeoaz gain, sarbide biak eta hauen inguruan hamar metro baino gutxiagora dagoen arloa.

• Enklabea andeatzea dakarten jardunak baztertu egingo dira: ehiza, egurrak, azienda...

e) Respetando las actuales iniciativas u otras que pudieran plantearse desde otros organismos y/o administraciones, se fomentarán, en aquellas cuevas con mayor interés para el uso público, fórmulas de visita, supervisando la instalación de equipamientos cuando ello sea necesario. Ello especialmente en la cueva de Pozalagua, donde se procurará asimismo la recuperación de las láminas de agua hoy desaparecidas a causa de las explosiones acontecidas junto a esta cavidad.

f) Se establecerán las medidas de control, vigilancia y seguridad del acceso en aquellas cavidades en las que se decida su visita controlada, tanto para la correcta conservación de cuevas y simas como para la integridad física de los visitantes.

g) Se procurará la recuperación (limpieza, control de acceso, etc.) de la cueva de Santa Isabel, deteniendo los procesos de degradación a los que esta cueva está sometida a causa de la facilidad de acceso y la inicial espectacularidad y fama de la misma.

h) Se impulsarán programas de formación de guías especialistas en la visita de cuevas, dirigidos preferentemente a los habitantes locales.

i) Se promoverá la realización de estudios específicos orientados a un mayor conocimiento de las necesidades de protección de los ecosistemas hipogeos y procesos hidrogeológicos, así como al desarrollo de campañas de exploración, limpieza u otras que afecten a las cavidades del área ordenada. Se buscará la colaboración con entidades de reconocido prestigio en este campo.

j) Se propone la actualización del inventario de cavidades del área, mediante la realización de un inventario específico que catalogue las actuales cavidades conocidas y en el que se vayan incluyendo los nuevos descubrimientos. Tal inventario podría hacerse extensivo al menos a la totalidad del territorio de los municipios de Valle de Carranza y Trucios-Turtzioz.

k) Se propone la realización de estudios tendentes a conocer la situación y necesidades de conservación de las colonias de quirópteros. Estos estudios deberán concretarse en la elaboración de un Plan de manejo de estas especies.

l) Se deberá regular y controlar el acceso del personal investigador al estudio de los elementos del patrimonio espeleológico.

7.3.– Criterios de ordenación En función de la zonificación del territorio.

7.3.1.– Zona de reserva.

• Conservar y preservar este enclave.

• Se considerará que forman parte de la reserva del refugio de Santa Isabel, además del propio sistema hipogeo, las dos bocas de entrada y el terreno situado a menos de diez metros de las mismas.

• Eliminar las actuaciones que provocan una degradación del mismo: caza, leñas, ganado,...

• Balio naturalak galdu ez ditzan beharrezkoak diren oihan-langintzako zereginak burutuko dira: birsorkuntzan laguntzea, izurriak kontrolatzea, suteak saihestea…

7.3.2.– Babeseko zonak.

• Zuhaitz-estalkiekin babestuko dira.

• Egungo zuhaiztiak mantenduko dira.

• Zuhaitzik gabeko zonak birlandatu egingo dira, horiek babesteko asmoz.

• Lurrean eragina duten ekintzak mugatu egingo dira; horretarako, besteak beste, basogintzako makinak erabiltzea arautuko da.

• Larreak noizean behingo artzaintzarako baino ez dira erabiliko. Aziendak ere bertatik igaro ahal izango dira, nahiz eta arrisku gutxiagoko gune emankorragoetan bazka dezaten sustatuko den. Sega-belardiei dagokienez, erabilera horrekin jarraitu ahal izango da, partzela txikietan garatzen bada eta horien arteko harrizko hesiak eta heskaiak mantentzen badira. Irizpideok betetzen ez dituzten emakidak baso izatera itzuliko dira.

• Erabilera publikoa aisialdi lineal estentsibora mugatuko da. Horretarako, interes gehien duten zonetara heltzea ahalbidetuko duten bidezidorrak edo bideak prestatuko dira.

7.3.3.– Kontserbazio aktiboko zonak.

a) Ekosistemak mantendu eta hobetuko dira.

b) Gizakiak lurraldeari ematen dizkion erabilerak mantendu eta hobetuko dira.

c) Zona hauetan, giza erabilerak mantendu eta hobetzeko nahiz espazioa kudeatzeko beharrezkoak diren elementuak eta azpiegiturak baino ez dira eraikiko eta instalatuko.

7.3.4.– Aurreratze ekologikoko zonak.

a) Ekosistema naturalak lehengoratuko dira, besteak beste horien balioa lermatzen duten inpaktuak ezabatuta.

b) Aisialdia erabilera lineal estentsibora bideratuta egongo da.

c) Eraikinei eta azpiegiturei dagokienez, antolamendu-irizpideak gauzatzeko behar-beharrezkoak direnak baino ez dira jarriko.

d) Ekosistema naturalak lehengoratzen joan ahala, zona horien kudeaketa kontserbazio aktiboko zonetakoekin bateratzen joan behar da.

e) Pozalaguako harrobiaren inguruak kudeatzeko orduan, 5.1.2 (eraikuntzako erabileraren mugak) eta 6.1.4 (erabilera publikoa orientatzeko erreferentzia-irizpideak) ataletan xedatutakoari lotuko zaio, zona horri dagokion antolamendu- eta lehengoratze-planarekin bat etorriz.

• Realizar las labores silvícolas necesarias para evitar la pérdida de sus valores naturales: ayudas a la regeneración, control de plagas, lucha contra incendios,…

7.3.2.– Zonas de protección.

• Preservarlas bajo cubierta arbórea.

• Mantener las masas arboladas actuales.

• Repoblar con fines de protección las zonas actualmente desarboladas.

• Limitar las acciones sobre el suelo, especialmente regulando el empleo de maquinaria forestal.

• Limitar el aprovechamiento pascícola al pastoreo ocasional y tránsito ganadero, promoviendo el desplazamiento de ganado hacia zonas más productivas y con menores riesgos. En el caso de prados de siega permitir la continuación de este uso, siempre que se mantenga su articulación en pequeñas parcelas y el mantenimiento de las cercas de piedra y los setos vivos de separación entre ellas. Las concesiones que no cumplan estos criterios deberán revertir hacia monte.

• Limitar el uso público al recreo lineal extensivo, habilitando sendas o itinerarios que permitan acceder a las zonas de mayor interés.

7.3.3.– Zonas de conservación activa.

a) Mantenimiento y mejora de los ecosistemas.

b) Mantenimiento y mejora de los usos humanos del territorio.

c) Limitar las actuaciones edificatorias e instalación de infraestructuras a aquellos elementos indispensables para el mantenimiento y mejora de los usos humanos y para la gestión del espacio.

7.3.4.– Zonas de progresión ecológica.

a) Restaurar los ecosistemas naturales, eliminando los impactos que merman el valor de los mismos.

b) Gestión del recreo orientada hacia el uso lineal extensivo.

c) Limitar el uso edificatorio e infraestructuras a aquellos imprescindibles para la consecución de sus criterios de ordenación.

d) A medida que se produzca la restauración de los ecosistemas naturales, la gestión debe ser convergente con las zonas de conservación activa..

e) En el entorno de la cantera de Pozalagua se observará lo dispuesto en los apartados 5.1.2 (limitaciones del uso edificatorio) y 6.1.4 (criterios de referencia orientadores del uso público), de acuerdo con el plan de ordenación y restauración que se elabore para dicha zona.

7.3.5.– Basogintzako eta abeltzaintzako erabilerarako zonak.

a) Emakida-sistemari eutsiko zaio eta lagapen-baldintzak betetzen direla zainduko da.

b) Ez da sortuko emakida erabiltzen ez denean emakida baso izatera itzultzea oztopatuko duen azpiegiturarik.

c) Heskaiak eta harrizko hesiak emakidak eta barne-partzelak mugatzeko erabiliko dira.

d) Baso-unadak kontserbatuko dira.

e) Abeltzaintzako eta basogintza jarduera garatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak sustatuko dira: itxiturak, bideak, askak…

f) Unitate hauen erabilera publiko bakarra aisialdi lineal estentsibokoa izango da.

7.3.6.– Zona periferikoa.

a) Abeltzaintzako erabilera intentsiboaren (esnetarako behi-azienda) produkzio-baldintzak mantendu eta hobetuko dira.

b) Paisaiaren dibertsitatea mantenduko da. Horretarako, egun landazabaleko paisaia eratzen duten elementuak kontserbatuko dira (heskaiak, zuhaixkak, eraikuntzak eta abar), eta galdu diren zonetan, berriz, berreskuratzeko ahaleginak egingo dira.

c) Andeatutako zonetan hostozabalak landatuko dira, besteak beste, ur-bazterreko zonetan eta koben inguruetan.

d) Zona hauetan bizi direnei azpiegitura-maila egokia eskainiko zaie: ura, elektrizitatea, telefonoa, sarbideak…

e) Abeltzaintza intentsiboak eragindako inpaktuak murriztuko dira, batez ere ur-korronteetan sortutako kutsadura.

f) Bisitariak hartzeko azpiegiturak zona hauetara mugatuko dira, bereziki.

8.– Mugapen orokorrak eta espezifikoak.

8.1.– Espazioen eta espezieen kontserbazioaren araberako mugapen orokorrak.

8.1.1.– Debekatutako erabilerak.

Alderdi bakoitzak duen araudia alde batera utzita eta Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalean oinarrituta (EJSN-93, 1560/1992 Errege Dekretua), arau orokor moduan, galarazita dago ondoko erabilerak eta/edo jarduerak Parkearen barrualdean egitea:

C.– Erauzteko industriak, lurpeko meatzaritza salbu, Ingurumen sailburuordearen 2002ko uztailaren 31ko Ebazpenarekin bat datorrena, hau da, Turtziozko udalerrian «Pandos zonako lurpeko kaltzita-ustiapenerako proiektua»ren Ingurumenaren Gaineko Eraginari buruzko deklarazioa duena.

7.3.5.– Zonas de utilización forestal ganadera.

a) Mantener el sistema de concesiones y vigilar el cumplimiento de las condiciones de la cesión.

b) Evitar la creación de infraestructuras que dificulten la reversión hacia el monte en caso de que la concesión no sea utilizada.

c) Mantener y promover los setos vivos y las cercas de piedra como límite entre concesiones y parcelas interiores.

d) Conservar los rodales boscosos.

e) Promover aquellas infraestructuras que sean necesarias para el desarrollo de la actividad ganadera y forestal (cierres, caminos, puntos de abrevada,…).

f) Limitar el uso público de estas unidades al recreo lineal extensivo.

7.3.6.– Zona periférica.

a) Mantenimiento y mejora de las condiciones productivas del uso ganadero intensivo (ganado vacuno lechero).

b) Mantenimiento de la diversidad paisajística, conservando los elementos constitutivos del paisaje de campiña actualmente existentes (setos, bosquetes, construcciones, etc.) y favoreciendo su recuperación en las zonas donde se hayan perdido.

c) Favorecer la plantación de frondosas en zonas degradadas: zonas de ribera, entorno de cuevas,…

d) Dotación de un adecuado nivel de infraestructuras a los habitantes de estas áreas: agua, electricidad, teléfono, accesos,…

e) Reducción de los impactos producidos por la ganadería intensiva, principalmente contaminación en las corrientes de agua.

f) Concentrar principalmente en estas áreas las infraestructuras de acogida del público visitante.

8.– Limitaciones generales y específicas.

8.1.– Limitaciones generales en función de la conservación de los espacios y las especies.

8.1.1.– Usos prohibidos.

Con independencia de la normativa por zonas, queda prohibido, con carácter general, la realización en el interior del Parque, de los siguientes usos y/o actividades, tomando como referencia la Clasificación Nacional de Actividades Económicas (CNAE-93. Real Decreto 1560/1992):

C.– Industrias extractivas, excepto minería subterránea, de acuerdo con la Resolución de 31 de julio de 2002 del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de Explotación Subterránea de Calcita Zona Pandos, en el término municipal de Trucios-Turtzioz.

D.– Manufakturako industria.

E.– Energia elektrikoa, gasa eta uraren ekoizpena eta banaketa, jarduera hauek izan ezik:

41.– Ura hartzea, araztea eta banatzea.

40.105. Energia elektrikoa banatzea.

Era berean, galarazita dago autobideak, errepide lasterrak eta errepide arruntak egitea, eginda dauden errepideen (BI-630, BI-2617 eta BI-4678 errepideen) ibilbidean kilometro batetik gorako aldaketak egitea, bai eta trenbideen, funikularren eta antzeko lineen azpiegiturak egitea ere. Pozalaguako kobetara heltzeko errepidearen aldaketa baimengarria izan liteke, oraingo aparkaleku arazo garrantzitsuak gutxitzeko.

8.1.2.– Eraikuntza-erabilerak.

8.1.2.1.– Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduerei lotutako eraikuntza-erabilerak.

a) Eraikuntza-erabilera hauek daude baimenduta:

1) Nekazaritzako eta abeltzaintzako edo basogintzako ustiapenari lotutako erabilerak, erreserbako, babeseko, kontserbazio aktiboko eta aurreratze ekologikoko zonetan izan ezik.

2) Nekazaritzako eta abeltzaintzako azpiegiturei lotutako eraikin txikiak (askak, tratamendu-eskortak, lanabesak gordetzeko txabolak…) zona guztietan daude baimenduta, erreserbako eta babeseko zonetan izan ezik.

3) Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiari lotutako bizitegi-erabilerak periferiako zonetan baizik ez daude baimenduta, eta, hor ere, Udal Arau Subsidiarioek ezarritakoa bete beharko dute.

b) Nolanahi ere, eraikin bat egiteko edo handitzeko baimena lortu nahi bada, eskaerarekin batera, Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko zerbitzu eskudunaren txostena aurkeztu beharko da. Txosten horretan, eraikina egin nahi den nekazaritzako eta abeltzaintzako edota basogintzako ustiategiaren bideragarritasuna azaldu, eta eraikina ustiategiak dituen premietarako egokia den adierazi beharko da.

8.1.2.2.– Beste eraikuntza-erabilera batzuk.

Eraikuntza-erabilera hauek daude baimenduta:

1) Nekazaritzako, abeltzaintzako edota basogintzako produktuak eraldatzen dituzten industria landatarrei lotutako erabilerak; baina periferiako zonetan baizik ez daude baimenduta, eta, hor ere, Udal Arau Subsidiarioek ezarritakoa bete beharko dute.

2) Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotuta ez dauden bizitegirako erabilerak; baina Udal Arau Subsidiarioetan biztanlegune edo landagune gisa mugatuta dauden arloetan baizik ez daude baimenduta.

3) Ekipamenduei eta erabilera publikoari lotutako erabilerak (tabernak, jatetxeak, ostalaritzako eta nekazaritza-turismoko establezimenduak eta antzekoak bar-

D.– Industria manufacturera.

E.– Producción y distribución de energía eléctrica, gas y agua, excepto:

41.– Captación, depuración y distribución de agua; y,

40.105. Distribución de energía eléctrica.

Así mismo, queda prohibida la construcción de autovías, vías rápidas, carreteras convencionales, las modificaciones de trazado de las existentes (BI-630, BI-2617 y BI-4678) cuando superen el kilómetro, y las infraestructuras de transporte ferroviario, funiculares o líneas similares. La modificación de la carretera de acceso a las cuevas de Pozalagua podría autorizarse para mitigar de este modo los importantes problemas de acceso y aparcamiento.

8.1.2.– Usos edificatorios.

8.1.2.1.– Usos edificatorios ligados a la actividad agropecuaria y forestal.

a) Se autorizan los siguientes usos edificatorios:

1) Los ligados a explotación agropecuaria o forestal, excepto en las zonas de Reserva, de Protección, de Conservación Activa y de Progresión Ecológica.

2) Las construcciones menores ligadas a infraestructuras agropecuarias (abrevaderos, mangas de manejo, chabolas de aperos...), en todas las zonas, excepción hecha de las de Reserva y Protección.

3) Cualquier residencial, vinculados a explotación agropecuaria, exclusivamente en las Zonas Periféricas y, dentro de éstas, de acuerdo a lo establecido por las Normas Subsidiarias municipales.

b) En cualquier caso, toda demanda de autorización de construcción o ampliación de un edificio deberá acompañar informe del Servicio competente en el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral. Tal informe deberá contemplar la viabilidad de la explotación agropecuaria o forestal para la que se solicita la edificación, así como la adecuación de ésta a las necesidades planteadas por la explotación.

8.1.2.2.– Otros usos edificatorios.

Se autorizan los siguientes usos edificatorios:

1) Los ligados a industrias rurales de transformación agropecuaria o forestal, exclusivamente en las Zonas Periféricas y, dentro de éstas, de acuerdo a lo establecido por las Normas Subsidiarias municipales.

2) Los residenciales, no vinculados a explotación agropecuaria, exclusivamente en las áreas delimitadas en las Normas Subsidiarias municipales como núcleo habitado o núcleo rural.

3) Los relacionados con el equipamiento y el uso público (incluidos bares, restaurantes, establecimientos de hostelería y agroturismo...), sean o no iniciativa del Par-

ne); berdin dio Parkearen ekimenez sortuak izan zein ez izan. Dena dela, ekipamendu horiek jartzeko, baimena eduki beharko da eta bateragarriak izan beharko dute Parkeak dituen helburuekin. Zona periferikoetan jarriko dira, ahal dela Arau Subsidiarioetan biztanlegune edo landagune gisa zehaztuta dauden arloetan, bai eta Pozalaguako harrobiaren inguruan ere.

4) Ingurumen sailburuordearen 2002ko uztailaren 31ko Ebazpenean emandako Ingurumenaren Gaineko Eraginari buruzko Deklarazioaren arabera «Pandos zonako lurpeko kaltzita-ustiapenerako proiektuan» meatzaritzako baliabideen ustiapenari lotzen zaizkion erabilerak.

8.1.2.3.– Eraikuntza-erabileren arau orokorrak.

a) Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerei (baserriak barne hartuta) edota basogintzako erabilerei lotuta dauden eraikinak eta erabilera publikokoak direnak ordenazioaren barruan egongo dira erabilera horiek dituzten bitartean, eta zein zonatan dauden alde batera utzita. Lurzoru urbanizaezinean eraikita dauden eraikinen erabileran aldaketaren bat egin nahi bada, bai gaur egun daudenetan, bai eraikuntza berria edota zabaltzea eskatu denetan, Parkeko Organo Kudeatzaileak txostena egin beharko du.

b) Erabilera dela-eta saneamenduko sistema behar duten eraikinek sistema egokia eduki beharko dute: putzu septikoa edo antzekoa, sare hidrografikora zein lurrera gai kutsakorrak isurtzea galarazten duena.

c) Debekatuta dago bizitegirako erabilerari lotutako isurketak egitea.

d) Eraikuntzako jardueretan, bai eraikin berriak egitean, bai lehendik dauden eraikinak aldatzean eta handitzean, dagozkien Arau Subsidiarioetatik etorritako araudiak xedatutakoa bete beharko da. Parkeko Organo Kudeatzaileak arreta handia jarri beharko du eraikinak zona bakoitzean baimendutako moten zehaztapenetara egokitzeko, eta estetikari eta paisaiari lotutako irizpideak aplikatzeko, eraikinak ingurunean integratu ahal izatearren. Parkeak kasu bakoitzean behar den irizpidea ezarri ahal izango du, eta, era berean, udalekin koordinatzeko mekanismoak eta laguntzeko ildo bereziak finkatu ahal izango ditu irizpide horiek betetze aldera.

8.1.3.– Beste mugaketak.

– Honako jarduera hauek guztiz galarazita daude antolatutako alderdi guztian:

a) Ondare naturaleko elementuak (hala nola, landaredia, fauna, gea, paisaia...) kaltetzea edo hondatzea, aintzat hartutako ekoizpen-erabileretan izan ezik.

b) Jarraipen-planik egin gabe, bertakoak ez diren eta basati bihur daitezkeen animalien edo landareen espezieak sartzea.

c) Ahuntzak larratzea artzaina bertan egon gabe.

